

JOSE LUIS LIZUNDIA ASKONDO jaunak, Euskaltzaindiko Idazkari-ordea eta Onomastika Batzordeko idazkaria denak, ondoko hau

DIKTAMINATZEN DU:

Batzorde honek, joan den ostiralean, Maiatzak 13, Iruñeko ordezkaritzan egindako bilkuran, Ezkio, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako herrien zerbitzuetarako “herri elkarte” edo hobeto esan, amankomunazgoaren izenaz jardun zuen.

Lehendabizi, inguru horrek izen historikorik duen aztertu zen eta ikusi zen bazirela batzu, baina batek ere ez zuela balio, zeren eta *IRIMO batasunak*, Urretxu eta Antzuola hartzen bai zituen; *ARGISAO batasunak* Zumarraga eta Ezkio eta *LEGAZPIko batasunak*, Legazpi, Zerain eta Mutiloa. Beraz, eskualde horrek historia aldetik ez du izen ofizialik.

Jarraian, *GOIERRI GARAIA* izena aztertzen da. *Alto Goierri*ren erdal izenaren itzulpena besterik ez da, berradierazpen hutsa baita. *Goierrri* (goi= herri), “tierra alta”, Catalunyako “Terra Alta” eskualdearen edo Eskoziako “Highlands” bezalako esanahia du.

UROLA GARAIA edo *GOI UROLA* erabiltzen dutela beste batzuk adierazten du eskabide gutunak. Bi izen horietatik *UROLA GARAIA* da hizkuntzaren aldetik izenik egokiena, “Goi Urola” “Alto Urola”ren erdal jozkerazko itzulpena delako.

Beraz, izen historikorik ezaz, eta aipatzen diren hiru izen geografikoetatik, alegia, *Goierrri Garaia*, *Urola Garaia* eta *Goi Urola*, akademi Batzordeak *UROLA GARAIA* hobestea erabaki du.

Eta hala adierazteko eta Zumarragako Alkatetzari bidaltzeko, Bilbon ematen du mila bederatziehun eta laurogeitazortzigarreneko Maiatzaren hamazortzian.

On Ikusia:

E. Knörr

Batzordeburua.